

13 ARABA

La Toberíako ur-jauziak



Ingurumen-garrantzia

Ibai ibilbidea Entzia mendilerroaren ipar isurian dago. Sinklinal eseki honen oinarrian iturburu batzuk ditugu, batzuk garrantzi handikoak, hala nola Toberíako ur-jauziak, benetako ibai-ikuskitzuna.

Izenak berak adierazi bezala, ibaiko landarierian amildutako uretan disolbatutako kaltzio karbonatoak sortzen ditu harkaitz porotsu horiek. Denboraren poderioz, landare-elementua hil eta desagertzen denean, haren hutsunea da harkaitzaren poroa. Horrek ematen dio haitzulo itxura paraje honi.

Bertako harria ona eta arina da oso landua izateko Garai batean erruz erabili zen Arabako elizetako gangak eraikitzeko.

Inguru honetako uraren iragazteak, kareharri eta dolomien zehar, erliebe berezia zizelkatzen du, non arrailak, lapiak, haitzuloak eta torkak ikus daitezkeen.

Ibilbidean zehar hosto iraunkorreko basoak aurkituko ditugu, besteak beste, erkametzak (*Quercus faginea*) eta pagoak (*Fagus sylvatica*), batzuk ehun urtetik gorakoak.

Horrek guztiak habitat ezin hobea sortzen dio askotariko fauna aberats bati non ezkailuak (*Phoxinus phoxinus*) diren nagusi.

Beste animalia batzuk aipatzekotan hor ditugu arrabia (*Salamandra atra*) eta apo lasterkaria (*Epidalea calamita*).

Hegazti eta ugaztun ugari ere bizi dira, balio geomorfologiko handiaz gain, paisaia ikusgarria eta ingurumen interes oparoa dituen ibai eremu honetan.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 1,2 km

🕒 40 min | 🚶



Udalerria:

Asparrena

Hurbileko herria:

Andoin

Hainbat arrisku faktore daude. Lehendabiziko ur-jauziraino ez dago zailtasunik. Bigarrenak oso igoera malkarra du, igatu ahal izateko adarrei heldu behar diegu. Trekkingerako oinetakoak eta makilak ez ahaztu.

Konbinaketa: baso-pista, ibitik igarotzea eta ibai ertzetatik igarotzea



734 m



132 m



607 m



7 m



LA
TOBERÍAKO
UR-JAUZIAK

La Toberíako ur-jauziak



Non dagoen eta nola heldu

La Toberíako ur-jauziak Arabako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdeko koadrantean dago, Arabako Lautada eskualdean, Asparrena udalerriko Andoin herriko lurretan Herri txiki honetara heltzeko, Gasteizetik berrogei kilometrora N-1 autobidearen 389 irteera hartuko dugu, eta ondoren A-3138 errepidea Egingo/Andoin norabidean.

Handik, A-4116 errepidean zehar, abiapuntura iritsiko gara.

Ibilbidea Andoin herrian hasiko dugu.

Bertako plazan hasten den kalea bide hormigoizatua bihurtzen da, eta abereentzako hesiaren parez pare, ibaiaren eskuin aldean dagoen errota zaharrera eramango gaitu. Pixka bat geroago, pasabide txiki bat zeharkatuko dugu ibaiaren gainetik.

hirurehun bat metro egin eta gero, bidegurutze bat dago. Ezkerrekoa hartuta, itxitura metaliko bat aurkituko dugu. Pasa ondoren, ez ahaztu hura ixtea.

Aurrerago, beste bidegurutze bat dago.

Eskuineko pistatik jarraituko dugu, ezkerretara utzita itxitura abereentzako hesiaren alboko bidexka.

Handik berrehun bat metrora, beste bidebanatze bat izango dugu. Ezkerrekoa hartuko dugu eta gutxira beste langa metaliko bat aurkituko dugu.

Handik ehun urtetik gorako pagoak eta haritzak dituen ingurua zeharkatzen duen pistatik helduko gara ibaira. Bertan presa txiki bat eta urtegia ikusiko ditugu.

Ibaia zeharkatuta, bidexka txiki bati jarraiki, uraren eskuin aldetik helduko gara ibaiaren iturburura.

Azken tarte hau, baldin eta euri-sasoian egiten badugu, ur-jauzi eder batzuk gozatu ahal izango ditugu.

Itzulerako bide bera hartuko dugu.

Edozein urtarotan egin daiteke ibilaldia, baina euri sasoian disfrutatuko ditugu gehien edertasun handiko eremu honetako ur-jauziak.

Nolanahi ere, labainkorra gerta daiteke eta komeni da tentu handiz ibiltzea umeak eramaten baditugu.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX




Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc



La Toberíako ur-jauziak



La Toberíako ur-jauziak



La Toberíako ur-jauziak

